

## AUTOEBALUAZIO ARIKETAK

### 10.GAIA

Irakasle taldea  
ELORDI GÜENAGA, UDANE  
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER  
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA  
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER  
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ  
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

1. Instruktoareen figurari buruz, zuzena EZ dena adierazi:
  - a. Kanpo praktika akademikoak egiten diren erakunde laguntzaileko kidea da.
  - b. Erakunde laguntzailean egiten du lana.
  - c. Kontratu finkoa izan behar du.
  - d. Bere egiteko nagusia da prestakuntza jarduerak antolatzea, unibertsitatearekin ados jarrita.
  
2. Kanpo praktikan parte hartzen duten agentei buruz, adierazi zuzena dena:
  - a. Tutorearen funtzio nagusia da ikasleari jarraipena egitea eta laguntzea.
  - b. Praktika Programaren Arduraduna (PPA) ikasle guztien tutorea da.
  - c. Tutorea UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako kidea da.
  - d. Erakunde laguntzailean ez da egoten unibertsitatearekin koordinatzeko figurarik.
  
3. Instruktoareen eskubideen artean daude:
  - a. Venia Docendi aitortzea.
  - b. Kanpoko praktikak arautzen dituen arautegiaren informazioa izatea.
  - c. Prestakuntza proiektuaren informazioa izatea.
  - d. Guztiak zuzenak dira.
  
4. Instruktoareen eginbeharren artean daude, zuzena EZ dena adierazi:
  - a. Ikasleari harrera egin.
  - b. Garatu beharreko jarduera antolatu, prestakuntza proiektuan zehaztutakoaren arabera
  - c. Ikaslearen zereginak eta autoebaluazioa egin.
  - d. Ikasleari buruz eskuratzen duen edozein informazio isilpean gorde.
  
5. Instruktoarea izateko, nori jakinarazi behar diot nire asmoa?
  - a. Lan egiten dudako erakundeko Arduradunari, praktiken koordinazioaz arduratzen denari.
  - b. UPV/EHUko Praktika Programaren Arduradunari.
  - c. Irakasle tutoreari.
  - d. Ikasleei.

## ERANTZUNAK

Galdera zenbakia	Erantzun zuzena
1	c
2	a
3	d
4	c
5	a